



KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEAREN ERABAKIA, DONOSTIAKO JUDO KLUBEKO LEHENDAKARI [REDACTED] JAUNAK EUSKADIKO JUDO ETA ELKARTUTAKO KIROL EN FEDERAZIOAREN HAUTESKUNDE-BATZORDEAK 2016ko URRIAREN 20an HARTUTAKO ERABAKIAREN AURKA JARRITAKO ERREKURTSOA EZESTEN DUENA

Espediente-zenbakia: 28/2016

AURREKARIAK

Lehena.- 2016ko urriaren 26an, Donostiako Judo Klubeko lehendakari [REDACTED] jaunak Gipuzkoako Judo eta Elkartutako Kirolen Federazioaren hauteskunde-batzordeak 2016ko urriaren 20an hartutako erabakiaren aurka jarritako errekurtsoa iritsi zen Kirol Justiziako Euskal Batzordean (aurrerantzean, batzordea). Erabaki haren bitartez, dagokion lurralde-federazioaren batzar nagusirako kide hautetsien behin-behineko izendapenaren aurka aurkeztutako erreklamazioa ezetsi zen.

Bigarrena.- Kirol Justiziako Euskal Batzordeak adierazitako errekurtsoa izapidetzea eta, beraz, espedientea eskatu eta Gipuzkoako Judo eta Elkartutako Kirolen Federazioari entzunaldia ematea erabaki zuen.

Hirugarrena.- Gipuzkoako Judo eta Elkartutako Kirolen hauteskunde-batzordeak batzorde honek bidalitako errekerimenduari erantzun zion, eta hauteskunde-prozesuari buruzko informazioa eta alegazio-idazkia, 2016ko azaroaren 14koa, bidali zituen.

Errekurtsu hau Gipuzkoako Judo eta Elkartutako Kirolen hauteskunde-prozesuaren zuzenbidearekin bat etortzeari dagokionez jarritako errekurtsu



multzo baten zati denez (22/2016, 25/2016, 26/2016, 28/2016 eta 30/1016 zenbakietako espedienteak), eta hauteskunde-batzordearen alegazioen idazkiak errekurtsio horietan azaltzen ziren gai guztiei erantzuten ez zionez, batzordeak bi aldiz eskatu dio hauteskunde-organo horri (2016ko azaroaren 22an eta 28an jakinarazitako idazkiak) aipatutako espedienteen errekurtsioei buruzko informazio osa zezala, eta errekerimendu horiei erantzun zaie 2016ko azaroaren 23an eta 29an aurkeztutako idazkien bitartez.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehena.- Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legearen 138.b) artikulua eta Kirol Justiziako Euskal Batzordea arautzen duen urriaren 18ko 310/2005 Dekretuaren 3.b) artikulua eskumena aitortzen diote organo honi «*kirol-federazioen hauteskunde-batzordeen erabakien aurka jarritako errekurtsioak aztertzeko eta ebazteko*»,

Bigarrena.- Errekurtsogileak, hots, Donostiako Judo Klubeko lehendakariak bere errekurtsio-idazkian adierazi du ez dagoela ados hauteskunde-batzordeak 2016ko urriaren 20an hartutako erabakiarekin, zeinaren bitartez, interesdunak eta hauteskunde-batzordeak lurralde-federazioaren batzar nagusirako kide hautetsien behin-behineko izendapenaren aurkako «*hauteskunde-errekurtsioa*» deitzen dutena ezezten baita. Erabaki hori hartu zen ustezko «*hauteskunde-errekurtsioa*» hori 2016ko urriaren 18an aurkeztu zelako, baina, hauteskunde-batzordeak onartutako hauteskunde-egutegiaren arabera, aipatutako behin-behineko izendapenaren aurkako «*erreklamazioak*» jartzeko epea 2016ko urriaren 17an bukatzen zen.

Errekurtsioa jartzeko lehenengo arrazoi horri dagokionez, benetako zirkunstantziak baketsuak dira, hau da, egia da hauteskunde-egutegian kide hautetsien behin-behineko izendapenaren aurka «*erreklamazioak*» jartzeko epe



bat ezarri zela eta epe hori 2016ko urriaren 17an bukatzen zela eta hauteskunde-batzordeak ezetsi zuen «*hauteskunde-errekurtsoa*» 2016ko urriaren 18an aurkeztu zela.

Aurrekoa gorabehera, errekurtsogileak uste du «*hauteskunde-errekurtsoa*» hori dagokion epean aurkeztu zela, eta hori honako hau kontuan hartuta: 1) Hauteskundeak 2016ko urriaren 13an egin ziren, eta egun horretan bertan hauteskunde-batzordearen akta onartu eta argitaratu zen batzar nagusirako hautetsi ziren kideak behin-behinean izendatu ziren; 2) Hauteskunde-arautegiaren 5. artikuluan honako hau ezartzen da: «*Hauteskunde-egintza guztiak (hautagaitzak aurkeztea, aurkaratzea, kontsultak eta abar) federazioaren egoitzan egingo dira honako ordutegi hauetan (jarri ordutegia): astelehenetik ostegunera: 17:00etatik 19:00etara*»; eta 3) Hauteskunde-arautegiaren 25. artikuluan honako hau ezartzen du: «*Hauteskunde-mahaiaren eta hauteskunde-batzordearen erabakien aurkako errekurtsoak hauteskunde-batzordeari berari zuzenduko zaizkio, Kirol Justiziako Euskal Batzordeari dagozkion kontuetan izan ezik. Errekurtsoak aurkezteko epea bi egun baliodunekoa izango da*».

Bada, errekurtsoan ondorioztatzen da kontuan hartzen bada hauteskundeak 2016ko urriaren 13an (osteguna) egin zirela, egun horretan hartutako erabakiak aurkaratzeko bi egun baliodunak (hauteskunde-arautegiaren 5. eta 25. artikuluetan ezarritakoa kontuan hartuta) urriaren 17a (astelehena) eta 18a (asteartea) zirela; horregatik, «*hauteskunde-errekurtsoa*» zegokion epean jarri zen. Errekurtsogileak gaineratu du beste gauza bat dela hauteskunde-batzordeak onartutako hauteskunde-egutegiak, haren ustez iraingarria denak, ez aintzat hartzea arau-aurreikuspenak, ezta hauteskunde-arautegikoak ere.



Horretaz gain, errekurtsuan gaitzesten da hauteskunde-batzordearen 2016ko urriaren 13ko akta sinadurarik gabe argitaratu zela webgunean, eta ez dagoela bermatuta noiz sinatu zen benetan.

Eta, azkenik, errekurtsuan adierazten da, halaber, ez dagoela ados [REDACTED] jauna 2016ko urriaren 13an egindako hauteskundeetan kontu-hartzaile izendatzea ez onartzearekin; horri dagokionez, hauteskunde-batzordean 2016ko urriaren 18an jarri zen «*hauteskunde-errekurtsuaren*» alegazioei buruz esandakoa aipatzen du.

Gorago azaldutako guztiarengatik, errekurtsua baiestea eskatzen da errekurtsu horren xede diren ondorio ezeztatzaileekin, baita hauteskunde-prozesuaren kautelazko etetea ere harik eta batzordean aurkeztutako errekurtsuak ebatzi arte.

Hirugarrena.- Errekurtsuan proposatzen den gai nagusia aztertu baino lehen, hau da, 2016ko urriaren 18an aurkeztutako “*hauteskunde-errekurtsua*” izenekoak zegokion epean aurkeztu ote zen eta hortik eratorriko liratekeen ondorioak aztertu baino lehen, errekurtsuan azaltzen diren gainerako arrazoiak aztertuko ditugu aurretik.

Arrazoi horietako bat da adierazgarritasun ezeztatzailearen bat ote duen 2016ko urriaren 13ko hauteskunde-batzordearen akta webgunean argitaratu izanak batzordekideen sinadurarik gabe; izan ere, arrazoi hori dela medio errekurtsogileak ez daki akta benetan noiz sinatu zen.

Gai hori erabat formala da, eta ezin ditu, inola ere hauteskunde-batzordeak 2016ko urriaren 13an hartutako erabakiak baliogabetu.



Hauteskunde-espeditentari erantsitako dokumentazioarekin –eta hauteskunde-batzordeak esaten duenez federatuentzat eskuragarri zegoena federazioen egoitzan erabakiak hartu bezain laster– egiaztatzen da erabaki horiek aho batez hartu zirela eta bilkuraren akta hauteskunde-batzordea osatzen duten hiru kideek sinatu zutela.

Batzorde honek ere pentsa lezake komenigarria dela hauteskunde-prozesuan hartutako erabakiak osorik argitaratzea webgunean, erabakiak onartu dituzten pertsonen sinadurarekin, baina hutsune formal hutsal batek ezin ditu ondorio ezeztatzaileak izan, salbu eta hutsune horien ondorioz defentsagabezia materialen bat izan bada, baina zirkunstantzia hori ez da egiaztatu eta ez da alegatu kasu honetan.

Laugarrena.- Errekurtsoa jartzeko aipatuko dugun bigarren arrazoiaren xedea da Donostiako Judo Klubaren ordezkaria ez dagoela ados 2016ko urriaren 13ko hauteskundeetan [REDACTED] jauna kontu-hartzaile izendatu ez izanarekin, eta orain ebazten ari garen errekurtsuan, 2016ko urriaren 18an, hauteskunde-batzordean jarri zen «*hauteskunde-errekurtsoaren*» alegazioak aipatzen dira.

2016ko urriaren 18ko «*hauteskunde-errekurtso*» hartan adierazi zen ez zegoela ados eztabaidaren xede den izendapena ukatzeko hauteskunde-batzordeak ematen zuen arrazoiarekin: [REDACTED] jauna batzar nagusiko kide zenez, hura kontu-hartzaile izendatzeak urratuko luke ezinbesteko independentzia-printzipioa.

Errekurtsogilearen iritziz, kontu-hartzaile izateko dagoen bateraezintasun bakarra da kontu-hartzaile diren pertsonak ezin direla, aldi berean,



hauteskunde-batzordeko eta hauteskunde-mahaiko kide izan, Euskal kirol-federazioen eta lurralde-federazioen hauteskunde-erregelamenduak prestatzeko eta hauteskundeak egiteko irizpideak finkatzen dituen Kulturako sailburuaren 2012ko otsailaren 19ko Aginduaren 14. artikuluan aurreikusita dagoenaren arabera.

Hauteskunde-batzordeak 2016ko urriaren 11n hartu zuen [REDACTED] jaunaren kontu-hartzaile izendapena ukatzeko erabakia (beraz, 2016ko urriaren 13ko erabakia hartu aurretik), eta erabaki horren aurka jartzen da behin eta berriro errepikatzen ari garen 2016ko urriaren 18ko «*hauteskunde-errekurtsoa*», eta erabaki hori biltzen duen aktan jakinarazten da erabaki horren aurka errekurtsoa jar zitekeela Kirol Justiziako Euskal Batzordean erabakia jaso ondorengo bost eguneko epean.

Hauteskunde-batzordeak 2016ko urriaren 11n hartu zuen erabakian aipatzen den errekurtsoarekiko eskubidea hartutako erabakiak eskubideak edo interesak eraginpean hartzen dizkionari dagokio, logikoa denez.

Eta izendapen izenduna denez, errekurtsoa jartzeko interesduna eta legitimatua [REDACTED] jauna da, ez, ordea, [REDACTED] jauna, azken hori ez baitago legitimatuta xede hori formulatzeko, ez bere izenean, ezta bera lehendakari den kluba ordezkatzuz ere. Beraz, hauteskunde-batzordeak 2016ko urriaren 11n hartutako erabakia zuzenbidearekin bat datorren ala ez jakiteko egin daitekeen balioespenetik haratago, emandako errekurtsoaren arrazoia ezin da positibotzat hartu errekurtso hori horretarako legitimatuta ez dagoen norbaitek jarri duelako.

Bosgarrena.- Errekurtsoak oinarritzat hartzen duen azken arrazoia –eta nagusia–, arestian adierazi dugunez, honako hau da: hauteskunde-batzordeak hartutako erabakiarekin ados ez egotea; izan ere, erabaki horren arabera ezetsi



egin da lurralde-federazioaren batzar nagusirako kide hautetsien behin-behineko izendapenaren aurkako «*hauteskunde-errekurtsoa*». Ezespen hori justifikatzeko esaten da «*hauteskunde-errekurtsoa*» 2016ko urriaren 18an aurkeztu zela, hau da, epetik kanpo; izan ere, hauteskunde-batzordeak onartutako hauteskunde-egutegiaren arabera, behin-behineko izendapenaren aurkako «*erreklamazioak*» aurkezteko epea 2016ko urriaren 17an bukatzen zen.

Ebazpen honetako testu osoan komatxo artean jarri ditugu «*hauteskunde-errekurtsoa*» eta «*erreklamazio*» hitzak, errekurtsogileak eta hauteskunde-batzordeak berak nolabaiteko nahasketa dutelako aurkaratzeko bi baliabideei dagokienez, bi kontzeptu juridikoak bereizi gabe erabiltzen baitituzte aurkaratzeko baliabide desberdinen aurrean gaudenean; izan ere, «*erreklamazioak*» behin-behineko erabakien aurka jartzen dira eta «*hauteskunde-errekurtsoak*» kasu honetan hauteskunde-batzordeak hartutako behin betiko erabakien aurka, Gipuzkoako lurralde-federazioaren hauteskunde-prozesua izapidetu bitartean.

Horrenbestez, batzar nagusirako kide hautetsien behin-behineko izendapenaren aurka (hauteskunde-batzordearen 2016ko urriaren 13ko erabakia) «*erreklamazioak*» egin zitezkeen, ez, ordea, «*hauteskunde-errekurtsoak*» eta «*erreklamazio*» horiek aurkezteko azken eguna 2016ko urriaren 17a zen.

Hala badagokio, batzar nagusirako kide hautetsiak behin betiko izendatzeko hartutako erabakien aurka jarri beharko litzateke «*hauteskunde-errekurtsoa*», baina guk ez dakigu ziur hauteskunde-egintza horren aurka horrelako aurkaratze-baliabiderik egin denik.



Hortaz, Donostiako Judo Klubeko lehendakariak 2016ko urriaren 18an aurkeztu duena batzar nagusirako kide hautetsien behin-behineko izendapenaren aurkako «*erreklamazio*» bat da, nahiz eta lehendakari horrek ematen dion eta hauteskunde-batzordeak orain errekurritu den 2016ko urriaren 20ko erabakian bere egiten duen kalifikazio juridikoa «*hauteskunde-errekurtsoarena*» izan.

«*Erreklamazio*» bat edo «*hauteskunde-errekurtso*» bat epez kanpo aurkezteak dakarren ondorioa hura ez onartzea da ez, ordea, hura ezestea, hauteskunde-batzordeak 2016ko urriaren 20an hartutako erabakian oker jasotzen den bezala, baina ñabardura horrek ez du garrantzi handirik guri dagokigun ondorioetarako.

Nolanahi ere, eta ñabardura hori alde batera utzita, hauteskunde-arautegiaren 25. artikulua, eta zentzu berean, Euskal kirol-federazioen eta lurralde-federazioen hauteskunde-erregelamenduak prestatzeko eta hauteskundeak egiteko irizpideak finkatzen dituen Kulturako sailburuaren 2012ko otsailaren 19ko Aginduaren 32. artikulua hauteskunde-mahaiaren eta hauteskunde-batzordearen erabakien aurkako «*errekurtsoak*» aurkezteko epea soilik ezartzen dute –bi egun baliodun–; ez dute ezartzen, ordea, hauteskunde-organo horiek hartutako behin-behineko erabakien aurkako «*erreklamazioak*» zer epetan aurkeztu behar diren.

Egia esan, ez dago antzeko aurreikuspenik ez hauteskunde-arautegian, ezta Kulturako sailburuaren 2012ko otsailaren 19ko Aginduan ere, zeinaren bitartez ezartzen den epe bat bete behar dela «*erreklamazioen*» kasuan; horregatik, arau-aurreikuspen hori ez dagoenez, horretarako epea hauteskunde-batzordeak onartutako hauteskunde-egutegian ezarritakoa izango da, 2012ko otsailaren 19ko Aginduaren 6. artikuluan aitortuta dituen eskumenaz betez.



Pentsa daiteke eztabaida sortzen duen kasu honetan, «*erreklamazioak*» egiteko hauteskunde-egutegian ezarrita dagoen epea urria dela edo ez, baina hauteskunde-egutegia onartzeko eskumena duen organoak onartu duenez eta federazioko kide guztiek egutegi hori ezagutzen zutenez edo ezagutu beharko zutenez, ez dago inolako arrazoirik egutegi hori ez betetzeko aukera izateko, ez-betetze horrek, gainera, «*erreklamazio*» bat epez kanpo aurkezteari atxikitako ondorioak izango ditu.

Laburbilduz, eta dagoeneko adierazitakoa errepikatzen badugu ere, lurralde-federazioaren batzar nagusirako kide hautetsien behin-behineko izendapenaren aurkako «*erreklamazioak*» egiteko epea, hauteskunde-egutegiaren arabera, 2016ko urriaren 17an bukatzen bazen eta Donostiako Judo Klubaren «*erreklamazioa*», egiaztatuta dagoenez eta ez da zalantzan jartzen, 2016ko urriaren 18an aurkeztu bazen, ezin dira egokitzat hartu aztertzen ari garen errekurtsioan ondorioztatutako asmoak eta ezin dira errekurtsioaren xede diren hauteskunde-egintzak deuseztatzeko ondorioztat hartu.

Horren guztiaren ondorioz, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak honako hau

ERABAKI DU

Donostiako Judo Klubaren lehendakari [REDACTED] jaunak Gipuzkoako Judo eta Elkartutako Kirolen Federazioaren hauteskunde-batzordearen erabakiaren aurka jarritako errekurtsioa, 2016ko urriaren 20koa, ezestea.



Erabaki honek administrazio-bidea amaitzen du. Beraz, bere aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote interesdunek Kirol Justiziako Euskal Batzordeari hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edo bestela administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian edo errekurtsogileen helbidearen arabera dagokienean, bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, halaxe xedatzen du-eta Administrazioarekiko auzien jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeak.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko abenduaren 16a.

JOSE LUIS AGUIRRE ARRATIBEL

Kirol Justiziako Euskal Batzordeko presidentea